

Urtebete geldirik egon eta gero, martxan da berriro ere Bertxingo Zentrala

- **Hainbat luizi gertatu ostean, zentral hidroelektrikoa elektrizitatea sortu gabe izan da denbora honetan; udal langileek lortu dute berriz ere berrezartzea**
- **Bertxinek sortzen duenarekin, ekoizpen handiko urteetan, Andoaingo udal-eraikinetako elektrizitate-beharra bete liteke**

Andoainen, 24-11-28.- Zenbait hilabetez geldirik egon ondoren, Andoaingo Udalaren jabetzakoa den Bertxingo Zentral Hidroelektrikoa martxan da berriro.

Zentralak urtebete baino gehiago iraun du elektrizitaterik sortu gabe; hainbat luiziren ondorioz, ura Inturiako presatik turbinara daraman kanalak kalte larriak jasan zituen. Ubideak 4 kilometro baino zertxobait gehiago ditu, eta tarte askotan lurrez bete zen. Gainera, bere hormak hautsi ziren ibilbideko hainbat puntutan.

Horiek onbideratzeko lanean jardun dira hilabeteotan udal langileak, eta azkenean, Zentraleko egoerari buelta ematea lortu dute; Zentralak sarera energia elektrikoa berriro eramatea lortu dute.

Bertxinek sortzen duenarekin, ekoizpen handiko urteetan, Andoaingo udal-eraikinetako elektrizitate-beharra bete liteke. Urtebetean 3.000 megawatt inguru ekoiztu daitezke. Zentrala 2030ean Udalak bere kontsumoak hornitzeko udal-estrategiaren zutabeetako bat da.

